



177

ALEA

arabako aldizkaria



ESTI ETA PABLO GOROSTIAGA

**"DENON ARTEAN ASKATU BEHARREKO
KORAPILOA DA PRESOENA"**



BALIABIDE ESKASEKO PENTSIODUNENTZAKO

laguntzak argindarra, gasa
eta berokuntza ordaintzeko



**Eskabideak
otsailaren 20ra arte**

info+: vitoria-gasteiz.org :: **Herritarrei laguntzeko bulegoak**





ALEA 177

2019-01-11 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ANAKOZ AMENABAR

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Lekaleak garbitzeko zerbitzu berria dute Lautadan.
- 8 **Protagonista:** Pablo eta Esti Gorostiaga.
- 12 **Iritzia:** 'Ohiturak', Iñaki Lazkano.
- 13 **Iritzia:** 'Alferrikako asmoak', Josune Velez de Mendizabal.
- 14 **Sarean:** #Maravillas.
- 15 **Iruditan:** Izotzean harrapatuta.
- 16 **Gizartea:** Bost urte igaro ostean, Borja Lazaroren arrastorik ez.
- 17 **Politika:** Lezamako baserrian tiroa jaso duen familiak babesa jaso du.
- 18 **Gizartea:** Aterpeko langileen datuak eskatu dituzte Gaztetxeko istiluengatik.
- 20 **Esanak, datuak eta laburrak.**
- 22 **Euskara:** Euskaraldia dinamikak utzitako datuak.
- 24 **Euskara:** Zortzi kuadrilletara iritsiko da Korrika.
- 26 **Kultura:** Labrazako Foruaren pergamina berreskuratu dute.
- 27 **Zinema:** 'Roma'. Zigor Etxebeste.
- 28 **Gure bazterrak.** Goiuri.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Iñaki Lazkano, Josune Velez de Mendizabal eta Zigor Etxebeste.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Lautadako nekazarien 'altxor' berria

Donemiliagako Okiturriko industriaguneko pabiloi batean lekaleak garbitzeko eta ontziratzeko makineria berria erabiltzen hasi dira eskualdeko lau laborari. Pozik daude Landa Garapenerako Lautada elkarteak jarritako zerbitzuarekin, denbora asko aurrezten dutelako. Bertako ekoizle txikiei dago zuzenduta hori.

Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri.**

Arabako Lautadak elikagaiak eraldatzeko zentroa izateko ahaleginean lehen pausua eman du: hain justu ere, lekaleak garbitzeko eta ontziratzeko zerbitzua inauguratu zuen urtea amaitu baino lehen, Donemiliagako Okiturri industriagunean. Oraingoan, eskualdeko lau ekoizle hasi dira makineria berria erabiltzen, baina asmoa da denborarekin inguruko zein Euskal Herriko beste hainbat txokotatik iritsitako abeltzainak eta nekazariak gehitzen joatea.

Urteak daramatza Landa Garapenerako Lautada elkarteak (ADRA) bertako produktuei "balio gehigarri bat" emateko proiektu zabala aurrera atera nahian. Bertako presidente Gustavo Fernandez Villatek gogoratu du orain dela bi urteko foru aurrekontuetan partida bat sartu zutela Lautadan elikagaiak eraldatzeko zentro bat sortzeko.

Prozesu parte-hartzailea jarri zuten orduan, nekazari eta abeltzainen beharrak zuzenean ezagutzeko. "Prozesu horretatik hiru lerro atera ziren: alde batetik, oilo eta untzien sakrifizio esparrua martxan jartzeko beharra ikusi zen; bestetik, fruta eta barazki kontserbak egin ahal izateko makineria; eta hirugarrenik, produktu ezberdinak garbitzeko eta etiketatzeko zerbitzua zegoen; tartean, lekaleak garbitzekoa", azaldu du Fernandez Villatek. Horren ondotik, bideragarritasun plana etorri zen. Azterketa horren bidez, Diputazioko partidak aurreikusten zuen diru kopuruari begira, hiru eskarien artean bideragarriena zein izan zitekeen ondorioztatu zuen

Joseba Martinez de Mendijur ekoizle gaztea, baba gorriak makineria berrian garbitzeko prest.





Hautsa eta zikinkeria kendu ostean, galbahe ezberdinak egiten ditu makinak; azken aukeraketa, baina, eskuz egiten da.

elkartek: hirugarren aukeraren alde egin zuen. Parte-hartze prozesuan interesa agertu zuten nekazariekin jarri zen jarraian kontaktuan, merkatuan zeuden makina ezberdinak aztertu eta aukeratu ostean, Donemiliagako Udalak utzitako pabiloi batean jarri du martxan; instalazioa prestatzeak eta makineria erosteak 67.000 bat euroko gastua izan du.

Landa garapenerako elkarteko presidenteak nabarmendu du gaur egun Heredia, Adana, Ixona eta Arrietako lau ekoizle dabiltzala lanean, baldintza guztiekin: "Makina %100ean dabil eta bakoitza hasi da lan egiten. Baina, probak ere egiten gabiltza: kontsumo elektrikoa, orduro garbitzen duen kilo kopurua... . Asmoa da makinari etekin handiagoa ateratzea, eta hortaz, ekoizle gehiagok erabil dezatela". Horrekin batera, iragarri du landa garapen elkartearekin batera, horren gaineko elkarte berria sortzeko asmoa ere badutela lau laborariek, "seriotasunez" lan egiteko baldintzak jarriko dituen.

Lau ordu 300 kilo garbitzeko

Nekazari horien artean, Adanako Joseba Martinez de Mendijur dago. Pozik agertu da makineria berriarekin, "azkar eta ondo" egiten duelako lan. "Orain arte eskuz egin dugun lana asko errazten du; babarrunen urteko ekoizpena gurean 3.000 eta 4.000 kilo artekoa da,

M **Mendia**
Optika

150 urte
zure ondoan

www.mendiaoptika.eus

eta eskuz garbitzea nekeza da. Makina berria lau ordutan 300 kilo garbitzeko gai da. Etxean, lan berdina egiteko, lauzpabost egun beharko genituzke", azaldu du.

Babarrunez gain, beste produktu batzuk ere ekoizten dituzte etxean, eta zerbitzu berriari esker, horiei arreta gehiago eskaini ahal izango diela gaineratu du: "Babarrun gorriaz gain, txitxirioak eta patatak ere baditugu, eta baita ortua ere, eta ez dugu denbora soberan izaten. Hortaz, bikain datorkigu".

Ekoizle guztiak babak garbitzen hasi dira, baina txitxirioak eta dilistak bezalako lekaleekin ere egiten du lan, eta baita bestelako produktuekin ere. Horren harira, Fernandez Villatek aipatu du arto ekologikoa eta zerealak dituzten ekoizle bana probatzeko prest agertu direla. "Probak egiten gabiltza, uste dugu artoarekin ez dugula arazorik izango eta denbora gutxian hasi ahal izango dela erabiltzen; zerealarena ezberdina da, galbahe ezberdinak behar dituelako. Fase honetan lekaleekin egingo dugu lan, eta probek ematen dituzten emaitzen arabera joango gara gainerakoetara zabaltzen", azpimarratu du.

Bilera Jaurlaritzarekin

Proiektuak aurreikusten dituen beste aukeren gainean galdetuta, Fernandez Villantek aipatu du hegaztiak eta untxiak sakrifikatzeke esparruarekin lotuta bilera dutela hitzartuta Jaurlaritzarekin: "Gaia nahiko aurreratuta dago; interesa duten hiru abeltzainek horren aldeko elkarte bat sortu dute, eta dagoeneko asmoaren berri eman dugu Arabako Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean, eta egunotan bilera izango dugu Jaurlaritzarekin". Sakrifizio esparru horietarako indarrean dagoen legea malguagoa izan dadin eskatuko dute bertan. Azken horren harira, azaldu du Itsasuko (Lapurdi) esperientzia gertutik ezagutzera joan direla eta "antzeko zerbait" eskatzeko asmoa dutela; alegia, horrenbeste baldintza ez eskatzea.

Aurrera egingo balu, proba pilotua jarriko lukete martxan: "Aukera ezberdinak aztertu ostean, Italiatik modulu bat ekartzea izango litzateke egokiena; kamioietako kontainer bateko tamaina duen leku batean egingo litzateke prozesu guztia. Aurrekontua, gainera, ez litzateke oso altua izango, 100.000 bat eurokoa". Elkartetik azpimarratu dute "beharra" dagoela, eskualdean bertan zein Euskal Herrian: "Gaur egun, ekoizle txikiek gertuen duten hiltegia Tafallan dago. Gure ametsa da etorkizunean elikagaiak eraldatzeko zentro zabalago baten enbrioia izatea Lautadakoa; ametsekin jarraituz, gariarentzako errota bat jartzea ere pasa zaigu burutik. Ikusi beharko dugu. Poliki goaz, pausu sendoak emateko asmoarekin", amaitu du Fernandez Villantek. ■

**"ORAIN ARTE ESKUZ
EGIN DUGUN LANA
ASKO ERRAZTEN DU;
URTEAN 4.000 KILO
BABA DITUGU ETXEAN"**

JOSEBA MARTINEZ DE MENDIJUR

**"SAKRIFIZIO
ESPARRUA SORTU
AHAL IZATEKO LEGEA
MALGUAGOA IZAN
BEHARKO LITZATEKE"**

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE



Parral

taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276833 GASTEIZ-ARABAKI

"Orain arte ikusle soilak izan direnak inplikatu behar ditugu"

PABLO GOROSTIAGA ETA ESTI GOROSTIAGA PRESO OHIA ETA SENIDEA

Bakearen bidea "guztien eginkizuna" dela eta sektore berrien inplikazioa beharrezkoa dela nabarmendu dute Pablo eta Esti Gorostiagak larunbateko mobilizazioen atarian; ardura nagusia estatuen esku egon arren, herritarrek egoera aldatzeko eginkizuna dutela uste dute. Testua eta argazkia: **Anakoz Amenabar.**

Bakegintzak aurrera egingo badu, presoen auzia "behingoz" konpondu behar dela uste dute Pablo Gorostiaga (Laudio, 1941) eta Esti Gorostiaga (Laudio, 1968) aita-alabek. Bakearen dinamikak "salbuespenezko neurriak indargabetzea" eta "giza eskubideak errespetatzea" eskatzen duela gogoratu, eta elkarbizitzaren bidean, Orain Presoak ekimenak Baionan eta Bilbon deitutako manifestazioekin bat egin dute.

Larunbateko manifestazioei begira, nolako giroa sumatzen duzue?

Esti Gorostiaga: Uste dut herritarrek sobera arrazoi dituztela manifestazio hauetara joateko. Nire eremuan horren argi ikusten dut joateko beharra, naturaltasun guztiz sentitzen dudala besteek ere hori egingo dutela, baina... Preso baten senide izan naiz, lagunak ditut espetxean eta medikua naizenez ere argi ikusten dut preso gaixoen afera, urraketa bat dagoela eta eskaera horren alde egiten den edozein dinamikan parte hartu behar dugula.

Pablo Gorostiaga: Aurreikuspena ona da. Mobilizazio handiena izan behar da. Politikoei eta

gobernuei dagokie urratsak egitea orain; gatazkako aktore bat desagertu da, eta orain besteek eman behar dituzte pausoak.

Pedro Sanchezek duela urte erdi iragarri zuen preso gaixoekin eta 70 urte gorakoekin hasiko zirela aurrerapausoak ematen...

P. G.: Denak daude ea nor den gogorragoa presoan aferarekin. Baina hori baino sinpleagoa da politika ikuspegitik: egoera berri bat dugu eta urrats berriak egitea hari tokatzen zaio. Guk presioa egin behar dugu, haiek eroso daudelako gatazkarekin, oroitzapenekin... edo nik ez dakit zerekin!

E. G.: Uste dut bide desberdinak jorratu behar direla. Politikariek euren negoziazio eta exijentziekin jarraitu beharko dute, baina beste herritarrok erantzukizuna dugu, nork bere esparruan; beste eragile batzuk inplikatu behar ditugu, orain arte ikusle soilak izan direnak; horiek ere erantzukizuna dute arazo hau konpontzeko, guztion arazoa baita.

PSO Eren gobernuak 3/2017 instrukzioa indargabetzeak zerbait esan nahi du?

E. G.: Zaplanarengatik indargabetu dela aipatu da, baina berari ez dagokio instrukzio hori preso



Esti Gorostiaga eta Pablo Gorostiaga Audioko Gure Aukera elkartearen batu dira ALEA-rekin.

prebentiboa delako. Ez daukat zalantzarik, halere, preso bat askatu nahi dutenean hala egingo dutela, nahiz eta guztiei aplikatu ez, ez daukate konplexurik horretarako. Gustatuko litzaidake pentsatzea osasun komunitatea beste modu batean inplikatu dela eta horregatik izan dela instrukzio aldaketa; erakunde internazionalen gomendioei jarraiki, mahai gainean gutxieneko exijentzia batzuk jarri behar direla planteatzen ari da. Forman, egia esan, osasungintza alorretik, ez dugu ikusten aldaketa nabarmenik, terminologian baino ez, baina hori aldatzera behartuta egon badira, zeozergatik izan da... Lege ikuspuntu batetik ere ez zen onargarria.

Osabidea elkartetik kritikatu egin dute estatuko ia erkidego denetan kartzelako medikuak espetxe administrazioakoak direla eta horrek independentzia profesionalaren gabezia ekartzen duela.

E. G.: EAEn eta Katalunian izan ezik, osasun penitentiarioak ez dauka aurrekontu publikorik, eta aldea nabarmena da. Horietan medikuak Barne ministerioakoak dira, eta beraz, ez da independentzia profesionalik, ez formaziorik, ez... Oso desberdina da sistema publikoaren parte izatea eta erreferentziako ospitaleko espezialistak

artatzea. Larri dagoen preso batentzat, espetxez besteko neurriak eskatzeko garaian, medikuak berak egin beharko luke eskaera, eta ez dago formaziorik horretarako, protokolo bat, erraminta bat zehazten duena, ezta espetxe osasungintza transferituta dagoen erkidegoetan ere. Noiz baloratu behar zaio espetxean dagoen preso bati bere gaixotasuna larria, kronikoa eta sendaezina dela, eta espetxearekin bateragarria ez dela? Horretarako adostutako dokumentu bat beharko genuke, eta ez dago.

Europar bada halako eredurik?

E. G.: Ez. Hau ikertzen saiatu ginen, eta Suitzako mediku batzuek ea zertarako nahi genuen galdetu ziguten harrituta. Eurentzat preso gaixo bat larri dagoenean larri dago, eta kanpora doa. Espainiako arbitrariorotasuna handia da, ordea, batzuk depresio batekin ateratzen dira, eta beste batzuk hiltzorian daudenean. Osabideak duen helburu potoloenetako bat hori da, adostutako dokumentu bat ateratzea.

Pablo, zortzi urte izan zinen espetxean. Zer eman eta zer kendu zizun espetxealdia?

P. G.: Euskal preso kolektiboa eta gainontzeko presoak barrutik ezagutzeko aukera eman dit



Zortzi urte egin zituen preso Gorostiagak. AIARALDE ATARIA

"DISPERTSIO POLITIKA, ARGI ETA GARBI, SENIDEEI EZARTZEN ZAIEN ZIGOR BAT DA"

"BARRUKOARI ZOR DIOZUN GUZTIAK MANTENTZEN ZAITU INDARTSU, BAINA DESGASTE BAT DA"

"EUREN LEGEA APLIKATZEA BAINO EZ ZAIE ESKATZEN, BAINA IPUINA DA HORI ORAINGOZ"

batean eta bestean –Dueñasen urtebete eta zazpi Herreran–, eta niretzat oso aberasgarria izan da. Hamaika urte bete dituzten presoak ikusten dituzu, eta beste hainbeste urte betetzeko dituztenak, eta barruan militatzen jarraitzen dutenak, bizitza diziplinatua dutenak, hobetzen saiatzen direnak, irakurtzen, kirola egiten... indarrez hartzen, entzierro horren aurrean zuk egin behar duzulako ahalegina aurrera egiteko. Giza kalitatea nabarmenduko nuke guztiena, bakoitza bere berezitasunekin... Eta hau esaten dut ni "aitite" nintzelako haietako askorentzat eta mimoz zaindu nindutelako. Haiek ere harrituta zeuden adin desberdintasunarekin; politikoki, sozialki oso aberasgarria izan zen. Eta, zer galdu nuen? Bilobak izan nituen han, haurtzaro batean... baina beste alde batetik jaso nuen, haurrak hara joaten zirenean ematen zidaten maitasuna sari bat zelako niretzat. Bestetik, Judith nire neska-laguna eta haren ama hil ziren barruan nengoen bitartean; espetxeak momentu zail horietan egotea kentzen dizu, pertsona horiek eman dizutena bueltatzeko ardura duzunean; baina, beste alde batetik, azken momenturarte seme-alabek ama ondo zaindu zuten lasaitasuna nuen. Denak dauka bere alde ona.

E. G.: Urte eta erdi egon zen ama gaixorik bisita egin gabe. Osaba ere orduan hil zen. Konturatu nintzen espetxera egiten nuen deietako asko norbaiten heriotzaren berri emateko zela; aitaren adina kontuan hartuta, erraza zen edozein momentutan halako berriren bat emateko deitzea, lagun edo ezagunen bat... Eta zenbat lagun eta familiako kide ez zeuden Herrerara bidaia egiteko moduan? Besteak beste, ama.

Etxean nola bizi izan zenuten espetxealdia, Esti?

E. G.: Gezurra dirudi baina aitak oso erraz jarri zigun, bera barruan ondo egon zelako beti. Orain ikusten ditut senideak bidai horiek egiten eta momentuan ez dakit nondik ateratzen diren indarrak. Batez ere barrukoari zor diozun guztiak mantentzen zaitu indartsu, baina fisikoki, ekonomikoki desgaste bat da... Ez dakit nola azaldu hori gizarteari. Denok dakigu zer den ospitale batera joan eta gaixo bat bisitatzea, baina zaila izaten da ulertzen preso batena, zer baldintzatan egin behar den bidaia kartzelara eta zer suposatzen duen. Jendeak uste du edozein momentutan deitu ahal dizula telefonoz, ordenagailua dutela, edozein momentutan atera daitezkeela... Errealitate hori bizi dute bizi dutenek.

Dispertsio politikak bere horretan jarraitzen du, Pablo.

P. G.: Ez dut ulertzen instrumentu horri eusten jarraitzea. Espetxeak gizarteratzeko helburua badu, zer hoberik inguruko familia eta lagunekin egitea baino? Logikoena gertuen dagoen espetxean egotea da, eta araudi orokorra ezarriko balute horrela litzateke. Euren legea aplikatzea baino ez zaie eskatzen. Baina ipuina da hori, momentuz; garaile eta garaituaren istorioarekin jarraitzen dugu.

E. G.: Hori ere aldatu daiteke, baina gizarte honetan dena da iragankorra, eta gai mediatikoa izan behar da jendearen sentibilizazioa lortzeko. Ez dakit horretarako oso kapazak garen.

Argudioak baditugu, asko gainera, presoekiko elkartasuna aldarrikatzeko eta eskubideak berma daitezen eskatzeko. Dispertsioarekin, esaterako, presoari urraketa egiten zaio, baina zigor hori argi eta garbi senitartekoentzat da; ez dut uste hori ulertzea zaila denik, eta horrekin bukatzea ezinbestekoa dela. Ideologiak alde batera, errealitate hori gizarteratzen duzunean ondo ulertzen da, baina beste gauza bat da zer egin daitekeen. Uste dut formula asmatu behar dugula oraindik.

P. G.: Hainbeste zarata dagoen mundu honetan, askotan gure mezua galtzeko arriskua dago. Hedabide makinaria handi baten aurrean, irrati, telebista eta egunkariak duten diskurtso etengabekoaren aurrean, zer egin? Zer egin munstro horrekin? Baina beti izan ditugu zailtasunak, eta ezin gara kokildu. Batzuetan ahalmenik gabe sentitzen zara, baina formulak bilatu behar dira sektore desberdinetara heltzeko; uste dut hor egin behar dugula esfortzua.

'Bakegintza eta elkarbizitzaren bidea: Orain Presoak' dio larunbateko manifestazioetako leloak.

E. G.: Gustatzen zait mezua interpelatu egiten zaituelako. Premiazkoa da, eta garaia da honi eskua sartzeko; guztiok daukagu hori eskura. Izan daiteke maisua zarelako eta haurretako batek senide bat duelako Algecirasen, edota fruta denda bat duzulako eta bisitan doan amari fruta saltzen diozulako. Denok dugu ezagunen bat inguruan, nahiz eta besteen arazoei erreperatzen ez diegun askotan. Denok dugu aletxo bat jartzeko aukera.

P. G.: Denok bultzatu behar dugu lan honetan. Onura denontzat izango da; presoen afera konpontzen badugu, herria eta egunerokoa denontzat izango da hobea. ■■■



ERAKUSKETAK

Queda mucho pasado por delante. Oroí
Artium bilduma
> 2019.08.25

Kolore nomadak
Menchu Lamas
> 2019.01.20

JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN
Eduardo Hurtado
01 | 10 19:00

FAMILIENTZAKO JARDUERAK

Artium Txikia
Igandero 12:15 > 13:30

Good Morning Artium
Igandero 12:00 > 13:30

FamiliArtium
Lantegia. Estantazioa eta haren teknikak
01 | 12 17:00 > 19:00

Familiantzako Lantegia (16. FICMA)
Landare hostoetan argazkiak errebelatzea. Sara Berasaluce
01 | 26 17:00 > 19:00

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK
Musikarekin esperimentatuz
12-18 urte bitarteko
01 | 19 17:00 > 19:00

ERAKUSKETEN BISITA GIDATUAK

Asteazkenero 18:30
Igandero 12:30

Artium Lorategian
01 | 25 18:30

Argibide gehiago:
www.artium.org

Ohiturak



IÑAKI LAZKANO
EUSKARA TEKNIKARIA

Antza denez aldatzen zailenak, agidanez gorde beharrekoak, dirudienez jagoteko eta sustatzeko modukoak. Baina, nork erabakitzen du hala behar duela izan? Zeintzuk mantendu eta zein baztertu? Sotanadun espiritu zaintzaileek ala kaikudun agintari politikoek? Akaso trajedun botere ekonomikoek?

Ohitura ugari ohikeria bilakatu, eta izan da hauek sutsu defendatu duen jendarte atzerakoia, baina zorionez baita hauek hankaz gora ipini dituen errebelde intsumiturik, iraultzailerik ere, ondoren gizarte osoak irabazitako eskubideez gozatzeko.

Ohikeriek ez digute aurrera egiten uzten, ez digute lagatzen esperimentazioaren bidez egoerak hobetzen; traba bilakatzen dira, edo are okerrago, burdinazko kate eta aingura pisutsu.

Albo batera utzi behar ditugu zenbait ohitura eta ohikeria gehienak, arriskatu beharra dago bizitzako arlo guztietan, aurrera egin eta norberaren nahiz komunitatearen garapena ziurtatu.

"Dabilen harriari etzaika goroldiorik lotzen" zioen Axularrek behiala, eta geroztik beste askok ere antzerako hitzak erabili dituzte; baina, nolatan gaude gaur egun atzera begira nagusiki? Zergatik ideia eta ekintza atzerakoiak aurrera bidean?

Ohiko jokabideek ez dute ezer urratzen, aitzitik, mugitu eta kateak sentitzen dituztenak soilik saiatzen dira bidegabekeriak gainditzen, eraldatzen eta gizarte osoarentzat onuragarri izan daitezkeen proposamenak egiten.

Betoz urte berriarekin grina ausartak, bihoaz ohikeria zaharrak.

Hala biz! ■■■

**OHIKERIEK EZ DIGUTE
AURRERA EGITEN
UZTEN; TRABA
BILAKATZEN DIRA,
BURDINAZKO KATE**

Alferrikako asmoak



JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

AKTOREA

Urte berriarekin asmoak biderkatzen dira. Ez beti, halere. Ez behintzat nire kasuan; alferkeriak irentsi nau. Lau eguneko minioporraldian batina jantzita eta sofan etzan naizela, urte berriak harrapatu nau, baita gripeak ere. Tira, *out* erabat eta defentsarik gabe *KO* geratu naizela urtarilaren lehengo egun hauetan. Aurten ez dut bete ezinak izango diren xedeen zerrendarik egin, *paso*. Inkesten arabera, jomuga horiek hilabeteko iraupena dute, eta zertarako lan hori egin otsailerako ahaztuta badaude erabat, eta ondoren etsipena eta frustrazioa badatoz? Eta aurretik ahaleginak egitea ere, bah, alferrikakoa!

"Gimnasia gehiagotan joan". Nolabait joan banoa... eguneko zortzi klase mota ezberdin horietako batera ere ez, baina ordaintzen dudana kuota saunara joanez justifikatzen dut...

"Ingelesera apuntatu". Urteetan esfortzu larregi, jakin badakit komunikatzeko adina gaitasun dudala. Ingelesean *nik patxi nago* badiot ere, konprobatuta daukat ulertzen nautela, ba listo! *Next!*

"Webgune, blog edo facebook-a egitea" litzateke beste bat, moda kontua, *trending*-a pasako da, eta orduan ni *amish influencer moloiena* izango naiz.

"Erretzeari utzi". Ez naiz sekula erretzailea izan, *argh*, 1-0, lortuta eta esfortzurik gabe.

Asmo originalak dioen artikulu bat irakurri dut orduan, betetzeko errezagok omen direnak:

"Gauzen alde positiboa ikusi, benetako aldaketa barrutik kanpora doa". *Aufff... omggggggg*

"Zure buruari denbora eskaini, eta gustuko dituzun gauzak egiteko astero zurekin hitzordua jarri". Ahalko banu zenbait egunetan zita erdian nire buruari plantoia emango nioke, *sum sum sum sum...*

"Agobiatzen hasi zarela nabaritzen duzunean, egin arnas sakon, adituek diote antsietateak bost minutu besterik ez duela irauten". Benetan? eta zertan nabil orduan ordubetez zutabe hau idazten!?

"Itxi zikloak, berriekin hasi baino lehen zaharrak amaitu", ene, hasierara bueltatu gara! *Facepalm*.

"Atsedean hartu, energia hartzeko lehenago geratu beharra dago, alferferrarena egin". Toma! hauxe bai aholku, xede, jomuga... nahi erreala! Berezkoa. Gainontzeko guztiak alferrikako asmoak. ■■■

**INKESTEN ARABERA,
ASMO HORIEK
HILABETEKO IRAUPENA
DUTE. ZERTARAKO EGIN
ESFORTZU HORI?**

SAREAN

@JUANMAGALLEG0

#Maravillas

Iruñeko Maravillas Gaztetxean sartu da Foruzaingoa asteartean, "eraikina ikuskatzeko", baina mugimendu horren atzean gune okupatua husteko asmoa dagoela salatu dute Gaztetxeo kideek. Horren aurka azaltzeko, protesta ugari izan dira Iruñean bertan eta Euskal Herriko beste txoko askotan ere, tartean Gasteizen. Nafarroako Gobernuak joan den asteko ostiralean eskuratu zuen epaitegietan Rozalejos jauregian sartzeko baimena. Teknikariek egindako txostenak dio "pertsonentzako arriskuak" dituela erakinak. ■■■



MIRARI
@ZurumurruAskea

Lehendabizi Gasteizko Gaztetxea, gero Talka, orain Maravillas. Badakigu aurten hauteskunde urtea dela, hala ere, bozkek baino gehiago gorrotoa ereiten ari zarete. Ez duzue lotsarik!! Maravillasetik ez dira pasako.



TXEMA LANDA
@LandaTxema

Foruzaingoa eta Espainiako Polizia berriz sartu dira Maravillasen. Desalojoaren aurka protesta egin duten gazteen kontra oldartu dira poliziak behin eta berriz. @AhotsaInfo-ko kamara bat ere kolpatu dute lanean ari zenean.



ION ORZAIZ
@IonOrzaiz

Espainiako Poliziaren karga bortitza parlamentu aurrean. Pilotak jaurti dituzte han geunden guztion kontra. San Anton karrikako atarietan gordeka ari zen jendea.



ANDREA AIAPE
@aaiape

Historia nola errepikatzen den... UPNrekin hamarkadetan bizi izan duguna eta gero, egungo egoeran ulergaitza. #GoraHerria #MaravillasHerriarentzat.



**MARAVILLAS
GAZTETXEA**
@maravillasGTX

@gob_na @geroabai Nafarroan aldaketa ez zen 2015ean hasi, urte luzetan zehar kalean egindako borroka eta negar guzien ondorio izan baitzen. Gaur berriz ere aldetaren apustua egin zuten malko guzti horiek traizionatzen ari zarete!



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

 IRUDITAN



Izotzean harrapatuta

Behea jo dute temperaturek Araba osoan azken egunetan; Izkiko parke naturala zeharkatzen dituzten errekek ere handitu egin dira eta izotz bihurtu dute bazterretan bizi den guztia. Landareak eta zuhaixkak izotzetan harrapatuta gelditu dira. Temperatura minimoetan marka egin du herrialdeak; Ozaetan erregistratu dute egun hauetan temperatura baxuena (-8,5 °C) urtarrilaren 3an, baina aipatzeko modukoak izan dira ere Agurainen (-7,7 °C) edota Gasteizko Abetxuku auzoan (-7,6 °C) jasotakoak. Ondoren, elurra etorri da herrialdeko bazterrak zuritzera. ■

Argazkia: Ornitologia Treviño @pajareo1.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

Bost urte igarota, arrastorik ez

Borja Lazaro argazkilaria Kolonbian desagertu zenetik bost urte pasa dira dagoeneko, baina oraindik gaztearen arrastorik ez dago. Hura aurkitzeko bilaketari berriro ekiteko eskatu dute gertukoek.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Elkarretaratzea egin dute asteartean Gasteizen, duela bost urte Kolonbian desagertutako Borja Lazaro argazkilaria gasteiztarra gogoratzeko. Era berean, gaztearen bilaketa lanak berriro hasteko eskatu dute. Ohi bezala, gaztearen ingurukoek antolatu dute Urrezko Zeledoen plazan egindako bilkura, eta, besteak beste, Udalaren babesa jaso dute.

Lazarok Luxenburgon lan egiten zuen ingeniari-tza informatikoan, baina argazki-kazetaritza zuen grinarik handienetakoa. Hortaz, 2013an, urte sabatikoa hartu eta

Hego Amerikara abiatzea erabaki zuen. Urte horretako urriaren 6an ateratu zen Gasteiztik Mexikora. Bertan ibili zen bi hilabete inguru, eta abenduan Kolonbiara abiatu zen. Interes berezia zuen Gauajira eskualdeko wayuu talde indigenaren bizitzako pasarteak jasotzeko; batez ere, Hezurren Jaia izeneko ospakizuna jaso nahi zuen iruditzen.

Argazkiak hartzeko baimena jaso izanagatik eskerrak emateko, indigenei esan zien eguberrietan bueltatuko zela, inprimatutako argazkien kopiak beraiei eramateko, eta horixe bera egin zuen.

Hainbat lagunekin Gabon zaharra Bogotan pasa ondoren, Guajirara itzuli zen, Cabo de la Vela herrira, eta bertako Pujuru ostatuan ikusi zuten azkenengoz, 2014ko urtarrilaren 7tik 8rako gauean. 34 urte zituen desagertu zenean.

Urte hauetan guztietan familiak ez du gaztea aurkitzeko itxaropenik galdtu, eta askotariko ekimenak antolatu dituzte, hala nola argazki-erakusketak, kontzertuak edota bilkurak. Tartean, *paradero-borja.org* izeneko webgunean bildu dituzte edozein informazio jasotzeko bideak.

RSF Mugarik Gabeko Kazetariak elkarteak kanpaina bat du martxan Kolonbiako agintariei ikerketan aurrera egin dezaten galdegiteko. Erakunde horrek uste du desagertzea bahiketa bati lotuta egon zitekeela, eskualde horretan talde paramilitarrei lotutako narkotrafikoa txertatuta dagoelako, baina bestelako hipotesirik ez du baztertu. Halere, denborarekin bahiketaren hipotesiak indarra galdu du, erreskate baten inguruko eskaerarik ez baita jaso bost urtetan.



Borja Lazaro gasteiztarren desagertzea ez ahazteko elkarretaratzea egin zuten asteartean. AFA



Bederatzi milimetroko bala batek leihoa apurtu eta sukaldeko hormaren kontra jo du. AIARALDEA

Etxe baten kontra tiro egin dute

Ezker Abertzalearen gertuko familia baten baserriaren kontra tiro egin dute Amurrion. Ertzaintzak lagun bat identifikatu du gertakariaren harira: hainbat iturriren arabera, Espainiako polizia ohia litzateke.

JUANMA GALLEGO AMURRIO

Joan den igandean izan da gertakaria, Lezaman (Amurrio), goizeko hamaikak aldera. Ezker abertzalearen gertukoa den familia baten baserriaren kontra tiro egin dute. Familiak salaketa jarri du Ertzaintzan.

Bederatzi milimetroko bala sukaldera sartu da, leihotik, baserriaren barruan hiru lagun zeuden unean: aita, ama eta seme bat. Horma baten kontra jo du balak, inor zauritu gabe.

Aiaraldea atarian jaso dituzten testigantzen arabera, lekukoek diote ezin dela izan ehiztari baten bala galdua, ezta familia arazo baten ondorioz gertatutako gertakaria. Zabaldu diren informazioen arabera, Espainiako polizia

**HIRU LAGUN ZEUDEN
BASERRIAN, BAINA
BALAK HORMA JO DU,
INOR ZAURITU GABE**

ohia litzateke Ertzaintzak identifikatutako laguna. Alabaina, haren etxea ikuskatu badute ere, ez dute atxilotu.

Gertakari "larria"

Jazotakoa gaitzetsi dute Amurrioko alderdi politiko guztiek, aho batez, eta elkarrerataratzea egin dute herrian. Familiako kide Murtxe Azkarragak hitz egin du gaiaren harira: "Jakin dezatela gu ez garela mugituko, ez gure arbasoen etxetik, ez gure pentsamendu politikotik", ohartarazi du.

Sortu alderdiak babesa agertu die erasoa jasan duten familiako kideei. Alderdiko idazkari nagusi Arkaitz Rodriguezen hitzetan, "oso larria" izan da Amurrion gertatutakoa. "Dakigunagatik, zoriak-kasu honetan, zori onak-ekidin du une honetan askoz ere gertaera larriago bati buruz hitz egin behar ez izatea, gerta zitekeelako bala horrek pertsona horietako bat jo izana eta hil izana", salatu du.

Bideoaren egilea aurkitu nahi dute

Sindikatuak diote Gasteizko Udalak Aterpe gaueko zentroan lan egiten duten langileen datuak eskatu dituela, antza, urteberrian Gaztetxean jazotako istiluak jaso dituen bideoa nork grabatu zuen jakin nahian.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

ELA, LAB eta ESK sindikatuak eta Arabako HIESaren Aurkako Batzordeak salatu dute Gasteizko Udalak iragan urtarrilaren 1ean lanean egon ziren Aterpe zerbitzuko hezitzaileen datu pribatuak eskatu eta zabaldu dituela.

"Gasteizko Udalaren Politika Sozial eta Osasun Publikoko Sailak, Inklusio Sozialeko arduradunaren bidez, 2018ko abenduaren 30etik 2019ko urtarrilaren 2ra lanean egon ziren langile guztien izen-abizenak helarazi ditu. Pribatuak diren datu hauek Administrazioari pasatu dizkiote, Da-

tuen Babeserako Legea urratuz", esan dute sindikatuak.

Enpresa-batzordeak gogoratu du Udalak kontrata baten bitartez kudeatzen duela Aterpea, eta, horrenbestez, ezin duela pribatua den informazio hori elkarbanatu. "Inolako agindu judizialik tartean egon gabe, Gasteizko Udalaren Politika Sozial eta Osasun Publi-

UDALAK KONTRATA BATEN BITARTEZ KUDEATZEN DU ATERPE GAUEKO ZENTROA

koko Sailak informazio-eskaria egin du Aterpe gaueko zentroko hezitzaile taldearen datu pertsonalen inguruan, urtarrilaren 1eko goizeko gertakarien inguruko ikerketa egiteko".

Ohartarazi dutenez, Gasteizko Aterpe zentroan lanean ari diren lagunen kontrako "sorgin-ehiza" bat abiatu du Udalak, Gaztetxean gertatutakoa jasotzen duen bideo bat grabatu eta zabaltzeagatik. Horren harira, Aterpe zentroko enpresa-batzordeak esan du ez dutela onartuko Aterpeko langileak izatea "pasa den urtarrilaren 1ean egindako zentzugabekeria errepresiboaren errudunak".

Datu hauek eman izanak zerbitzuan edo langileengan zein ondorio izan ditzakeen ez dakitela aitortu dute. "Paradoxikotzat" jo dute Politika Sozial eta Osasun Publikoko Saila lehena izatea gau horretan Aterpen lanean ari zirenen kontra aritzea. "Paradoxikoa diogu erakutsitako diligentziagatik, honen falta izan delako bere ezaugarria lege gintzaldi honetan zehar".



Urteberrian Gaztetxean izandako istiluak bideo batean jaso zituzten. Sindikatuak salatu dutenez, Udala egilearen bila dabil. HALA BEDI

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



55€
urtean



www.alea.eus/harpidetzak

ESANAK



BEATRIZ HERRAEZ
ARTIUMEKO ZUZENDARIA

"Emakumeekin dituen hutsune historikoak bete behar ditu Artiumen bildumak"



CRISTINA GONZALEZ
FORU ADMINISTRAZIOKO DIPUTATUA

"Urtarrilaren bigarren hamabostaldian argitaratuko da Diputazioaren LPEa"



LOLI GARCIA
CCOO-KO IDAZKARI NAGUSIA EAEN

"Michelinen egindako lanarekin oso harro gaude; horregatik irabazi dugu"

ZENBAKITAN

Zentimoak

AP-1 autobideko Arabako zatia bost eta hoge zentimo artean garestiago izango da 2019an, ibilgailuaren kategoriaren arabera: bost eta hamar zentimo bitartean ibilgailu arinentzat, eta hamar eta hoge zentimo bitartean astunentzat. Hala, ibilgailu arinek 1,15 euro ordainduko dute Etxabarri eta Luku arteko bidea egiteagatik, eta 2,10 euro, ostera, Etxabarri eta Arabako muga arteko zatiarengatik. 1 motako ibilgailu astunek 1,95 eta 3,55 euro ordainduko dituzte tarte horiengatik, eta 2 motakoek, hots, lau ardatz edo gehiagoko kamioi eta autobusek, 2,30 eta 4,20 euro.

20

3,3

Milioiak

Añanako Kuadrillako 2019ko aurrekontua onartu berri dute; guztira 3.389.027,82 euro inbertituko ditu Kuadrillak aurtengo egitasmoak aurrera ateratzeko. Hala, igoera handiena, (%2,25), langilegoaren soldatak ordaintzera zuzenduriko partidan onartu da. Halaber, hondakinen bilketan inbertsio garrantzitsua aurreikusi du Kuadrillak; eta Turismoaren arloan Done Jakue Bidea sustatu nahi dute eta Sobrongo Ur Museoa eta Ferrata bidea bultzatu.

100

Bisitariak

Michelin enpresako batzar batean parte hartuko duten ehun bisitarietako gastuak ordainduko dizkie Gasteizko Udalak. Hori salatu du EH Bilduk. "Gutxienez hiru kontratu atera ditu Udalak, batzarraren antolakuntzari lotuta, eta 155.000 euroko kostua dute. Besteak beste, ehun bisitarien gastuak ordaintzea aurreikusita dago. Hau da, ostaturia 4 edo 5 izarreko hoteletan, eta lekualdatze guztiak. Halaber, 50.000 euro gastatuko dira gala afaria eta bestelako otorduak ordaintzeko".

Erretiroa hartuko du Ruiz de Larrinaga txirrindulariak

Javier Ruiz de Larrinagak (Zuia, 1979) erretiroa hartuko duela iragarri du. Sasoi bukaeran izango da hori, hilabete barru. Profesio-naletan 13 denboraldi egin ostean, txirrindularitza utziko du. Ziklo-kroseko ibilbide oparoan, besteak beste, Euskadiko txapeldun izan berri da, eta 70 sari irabazi ditu. Munduko Txapelketarekin bukatu nahi du ibilbide profesionala.



Javier Ruiz de Larrinaga. @RUIZDELARRINAGA

Villambrosa herriko eliza monumentu izendatu dute

Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailak Villambrosako San Andres eliza monumentu kategoriako kultura ondasuna izendatu du, eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartu du. Goi-Erdi Aroko San Roman monasterioaren gainean eraikita dago oinplano errektangularreko gaur egungo tenplua.

Borondatezko lana mugatzeko eskatu du Podemosek

Gasteizko Podemos udal taldeak "doako eskulana" sustatzen duten Euroligako Lauko Finala bezalako ospakizunek dituzten hitzarmenak bertan behera uzteko eskatu du: "Ez gaude, berez, boluntarioen lanaren kontra, baina bai enpresa handiek etekin ekonomikoen tartea handitzeko helburuarekin egiten duten lan horren erabileraren kontra".

Norabide aldaketa eskatu du Zadorra Bizirik plataformak

Arabako uraren kudeaketan norabide aldaketa eskatu du Zadorra Bizirik plataformak, eta hiru eskakizun egin ditu Ebroko Ur Konfederazioaren aurrean, herrialdeko uraren babesa bermatzearren. Plataformak gogoratu duenez, Uraren Euskal Agentziak egindako azken txostenen arabera, azaleko zein lur-azpiko uraren %70tik gora egoera txarrean dago.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2018/19

Seihileko bat Finlandian egiteko aukera izan dut eta esperientzia izugarria izan da.

Amaia Iraeta Tranco
Durango.
Industria Antolakuntzako Ingeniaritza. 4. maila.

INGENIARTITZAK	HEZKUNTZA
ARRASATE URTARRILAK 12 LARUNBATA 10:30 GOIERRI OTSAILAK 2 LARUNBATA 10:30 ORONA IDEO OTSAILAK 9 LARUNBATA 10:30	ESKORITATZA OTSAILAK 16 LARUNBATA 11:00 KOMUNIKAZIOA ARETXABAETA OTSAILAK 16 LARUNBATA 11:00
ATE IREKIAK HIRIETAN: GASTEIZ URTARRILAK 23 18:00 Europa Jauregia	EKINTZAILETZA, ENPRESA KUDEAKETA BILBAO OTSAILAK 2 LARUNBATA 11:00 ONATI OTSAILAK 2 LARUNBATA 11:00 BIDASOA OTSAILAK 9 LARUNBATA 11:00
GASTRONOMIA ZIENTZIAK — Basque Culinary Center DONOSTIA OTSAILAK 14 OSTEGUNA 18:30	

Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

Hau hasi besterik ez da egin


Araban ere Euskaraldia mugarria izan da, eta ekimen eta harreman-sare berriak sortuko dira hemendik aurrera; euskararen biziberritzean ibilbide propioa osatzen ari da herrialdean.

BEÑAT GARAIO / BERRIA

Azken hamarkadetan, Araban, su geldoan ari gara kozinatzen euskararen biziberritzea. Lurralde honen hainbat berezitasun demografiko, sozial, historiko eta politikorengatik berezia da Araba (eta Gasteiz), eta berezia izan da euskarak duen bilakaera. Ezagutza, erabilera eta jarrera datuak erlatiboki azkar ari dira areagotzen, baina kualitatiboki ere aipagarriak izan dira gurean behatu diren joera, ekimen eta berrikuntza batzuk. Adibidez, Txerra Rodríguez Arabako euskalgintza ulertzeko "16 geltokiko bidaia" proposatu zuen, Iñaki Martínez de Lunak esparru akademikotik egindako lan itzela osatuz.

Euskaraldia Arabatik ere pasatu da, eta nola pasatu gainera: 20.000 arabar inguruk eman dute izena, eta zenbakiez haragoko aztarna utzi du, Arabako koordinatzaile Leire Sanjurjok ondo nabarmendu duenez. Gasteiztarrak izan dira horietako 13.000, baina Araban herriein zeuden zalantzak uxatu dira, hamaika egun horietan lurralde osoan ikusitako parte-hartzea ikusita (biztanleria oso urriko herriak baitira nagusi).

Euskaraldia iragarri zenean, ilusioa, elkarlana eta lanerako grina bultzatu zituen albiste horrek. Aurreko hilabeteetan



31 eta 45 urte arteko emakumea da Euskaraldiaren parte-hartzailearen profila. EUSKARALDIA


mugimendu handia sortu da, hamaika egun horietan baino handiagoa, Zuriñe Gil hamaikako nazionalen kideak eta GEU elkartearen langileak azaldu duen eran. Beraz, Euskaraldia susperraldia izan da, hein handi batean. Izugarritzko lana egin da esparru askotan, lan eraginkorra, Manex Agirre Zuiako Kuadrillako euskara teknikariak dioenez; eta horren ondorioz txip aldaketa lortu da herritarrengan.

Pozik ondorioekin

Hamaika egunak pasatu dira, eta balorazioak egiteko ordua da. Leire Sanjurjo eta Oier Azkarraga (Arabako eta Gasteizko Euskaraldiaren koordinatzaileak, hurrenez

hurren) bat datoz: oso pozik daude beren inguruan Euskaraldiak izandako ondorioekin. Hizkuntza-ohiturak aldatzea lortu da, eta Azkarragaren hitzetan, "izena eman duten 13.000 gasteiztarretik 2.000 lagun benetako aktibazioa lortu bada, hori ekarpen handia da dagoeneko". Azkarragaren ustez, Gasteizera bizitzera etortzen denak ikusi behar du hiri euskalduna dela, eta Euskaraldiko Gasteizen hori ikusteko aukera egon da: "Gasteiz aldatu da".

Euskaraldiaren balorazioaren prentsa oharrean kaleratu zen bezala, "izena eman duten herritarren haragoko eragina" izan du Euskaraldiak. Bi argazkitan ikus liteke hori.



Erdigunea izan da parte-hartzaile gehien batu dituen Gasteizko auzoa. EUSKARALDIA

Lehenik eta behin, antolakuntzan ikasteko aukera eskaini du Euskaraldiak. Hori nabaritu dute euskalgintzako eragileek eta instituzioek. Alex Vadillo Gasteizko Udaleko euskara zerbitzuko teknikariak hala esan du: "Ohitura badugu modu kolaboratiboan lan egiteko, baina erronka izan da talde gisa eta norbanako mailan". Gainera, sukalde lana pentsatu baino errazagoa izan da, nahiko librean aritu direlako eragileak hilabete luze hauetan. Honen harira, Zuriñe Gilek aipatu du elkartearen errutinatik kanpoko lana izan dela, eta gustura aritu direla elkarteetan. Uztartzea izan da erronka, udaleko teknikariak azaldu duen bezala: alde batetik, "gaur pentsatu, bihar egiteko" (herri-mugimendua), eta bestetik "gaur pentsatu, bi hilabete barru egiteko" (erakundeak) erritmoak zeudelako.

Bigarren argazkia Dorleta Martinez de Albeniz GEUko Euskaraldirako teknikariak erakutsi digu: sortu duen jakin-mina izugarria eta

Dokumentala prest dute

Gasteizko Euskaraldiaren esperientzia jasotzen duen dokumentala urtarilaren 9an aurkeztu dute, Oihaneder Euskararen Etxean. '11 baino +: Has Gasteizen euskaraz bizitzen' dokumentalak Gasteizko Euskaraldia aitzakia bezala hartu du euskarak hiriburuan bizi duen egoera aztertzeko. "Horretarako, esparru ezberdinetako elkarrizketatuak hautatu ditugu: komunikabideak, euskaltegiak, bizilagunak... Oso marko anitza eta polita sortu dugu". Estreinaldiaren ostean, urtarilaren 24an, Salburuko gizarte-etxean proiektatuko da dokumentala, 19:00etan, eta urtarilaren 31n, Zabalganeko gizarte-etxean, 19:00etan.

"INGURUNE SOZIOLINGUISTIKO EGOKIAK PRESTATU BEHAR DIRA"

MANEX AGIRRE, EUSKARA TEKNIKARIA

askotarikoa izan da gizarteko hainbat esparrutatik, eta adibidez, Gasteizko eskola askotatik jaso dituzte informazio eta material eskaerak Euskaraldiaren inguruan, eskola horietan gaia (eta ariketa) landu zezaten.

Beste ariketa bat

Dagoeneko badakigu laster beste ariketa sozial bat egingo dela, *ahobizi* eta *belarripresten* dinamikari jarraipena emanez. Elkarrizketatutako lagun gehienak bat datoz, hain justu, rola, txapen erabilera eta hamaikakoaren funtzioak hobeto azaldu eta ulertu beharra dagoela, Euskaraldian ikusi diren hainbat gaizki-ulertu eta kontraesan gainditzeko. Erronka nagusia, edonola ere, beste bat da: aldatu diren hizkuntza-ohiturak mantentzea, Manex Agirrek ederki esan duen moduan: "jendeak aktibo egoten jarraitu behar du eta ingurune soziolinguistiko egokiak prestatu behar dira".

Beste lurraldeetan bezala, Araban ere Euskaraldia mugarriz izan da, eta ekimen eta harreman-sare berriak sortuko dira hemendik aurrera. Euskararen biziberritzean ibilbide propioa osatzen ari diren Gasteiz eta Araban ere, hau hasi besterik ez da egin.

(*BERRIA egunkariaren argitaratutako testutik moldatua*). ■■■

Zortzietatik igaroko da Korrika

Apirilaren 9an sartuko da Korrika lehenbizikoz Araban, eta bi egunetan Kuadrilla guztiak zeharkatuko ditu. Apirilaren 14an amaituko da lasterketa, Gasteizko Andre Maria Zuriaren Plazan, 12:30ean.

ERREDAKZIOA ARABA

Arabako Kuadrilla guztiak zeharkatuko ditu aurturten Korrikaren 21. edizioak. Apirilaren 9an sartuko da lehendabizikoz herrialdean, Eginotik, 06:03ean, eta bi egunez ibiliko da Lautadan, Mendialdean, Arabako Errioxan, Trebiñun, Añanan, Aiaraldean eta Gorbeialdean. Ondoren, apirilaren 14an sartuko da berriro, Aramaiotik, Gasteizko helmugarako bidea hartzeko. Hiriburuan 08:23ean sartuko dela aurreikusita dute antolatzaileek, eta ekitaldi nagusia 12:30ean izango da.

Ohi bezala, aurreko Korrika amaitu zen herrialde berean hasiko da aurtengoa: Nafarroan, hain zuzen. Gares izan da lasterketari irteera emateko AEK-k aukeratutako herria. Bertatik abiatuko da mezu sekretua daraman lekukoa apirilaren 4an, arratsaldeko 17:00etan. Hurrengo hiru egunetan, Nafarroako hegoaldean ibiliko da lasterketa, eta apirilaren 6ko iluntzean ibilbidearen lehen hiriburura ailegatuko da: Iruñea.

Apirilaren 7an beste hiru hiriburutatik pasako da Korrika (Donibane-Garazi, Maule eta Baionatik, hurrenkera horretan) eta 8an, goizeko ordu txikietan, Gipuzkoan sartu-irtena egin ondoren, Lapurdi eta Nafarroara sartuko da berriro.



20. Korrika Gasteizen. ALEA

APIRILAREN 9AN ETA 10EAN IBILIKO DA 21. KORRIKA ARABAKO ZORTZI KUADRILLETAN BARRENA

Apirilaren 9an, asteartea, Nafarroa eta Araba artean sigi-saga ibili ondoren, lasterketa iparralderantz abiatuko da, Bizkaian sartu eta Ibaizabal zeharkatzen harrapatuko du hilaren 10eko gauerdiak.

Ostegunean, hilaren 11n, 12:00ak aldera iritsiko da Korrika Bilbora eta, Bizkaian barna bide apur bat egin

ostean, kostaldetik jarraituko du bidea.

Hilaren 12 eta 13an, nagusiki Gipuzkoan izango da lasterketa (Donostiatik pasako da hilaren 12ko arratsaldean); eta hegoaldeko sartuko da Bizkaian berriro, bederatzi eguna Otxandion amaitzeko.

Euskal Herriko herrialde guztiak ukituak izango ditu Korrikak ordurako, baina azken eguneko txanpa faltako zaio oraindik: ekialdera joko du lehenik, Arrasatetik Gipuzkoan berriro sartu eta hortik hegoaldera egingo du, lekukoa eskuz esku pasatuz apirilaren 14ko eguerdian helmugara ailegatu arte: Gasteiz. Mezuaren irakurketa eta amaierako jai handiaren hasiera eguerdiko 12:30erako aurreikusita dago, Andre Maria Zuriaren plazan. Ibilbide osoa herrika eta eskualdeka dago ikusgai www.korrika.eus webgunean.

Halaber, AEKtik jakinarazi dutenez, kilometroak erreserbatzeko aukera datorren urtarrilaren 14an zabalduko da. Interesdunek Korrika bulegoekin harremanetan jartzea besterik ez dute, kilometro zehatza gorde eta AEKren euskarategien aldeko diru-ekarpena egiteko. Araban araba@korrika.eus edo 946-46 40 00 telefonora deituta lortu daiteke horren inguruko informazioa. ■

Lezo Belarri entzunezkoen [2018]

Urtarrilak 23

19:00



JAIÑKOAK
ez dit
BARKATZEN



Lezo Urreiztietari eta
36ko Gerrari buruzko
pelikula

Solasaldia: Josu Martinez
(zuzendaria)

Labrazako Forua etxean da

Labrazako Foruaren pergaminoa erosi du Jaurilaritzak, Aldundiarekin lankidetzan, Madrilgo enkante-etxe batean, 9.325 euroren truke. Euskal Herriaren populaketari buruz ezagutzen den zaharrenetako bat da.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzak, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Labrazako Foruaren pergaminoa erosi du; Antso VII.a Azkarrak eman zion Foru hori 1196an Arabako San Cristobal de Labraza herriari. Abenduaren 19an erosi zuten Madrilgo enkante-etxe batean, eta 9.325 euro ordaindu zituen Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskadiko Artxibo Historikoak zaindu dezan. Segur aski XIII. mendeko kopia bat da pergaminoa.

Labrazako Forua XX. mendean desagertu zen herritik, eta Madrilgo enkante-etxe batean aurkitu dute Arabako Errioxan bizi diren eta historia maite duten hainbat pertsonaren lanari esker: Juan Manuel Martinez Labrazako alkatea, Alicia Marin Perez Oiongo Udaleko artxibozaina, Jose Angel Chasco etnografoa, eta Pedro Uribarrena historialaria. Arabako Foru Aldundiak eman zion egoeraren berri Eusko Jaurilaritzari, Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Kultura Ondareari buruzko legeek lehentasunez erosteko ematen dioten eskubidea gauza zezan.

Agiri hori Euskal Herriko Erdi Aroko populaketaren inguruan ezagutzen den zaharrenetako



Labrazako Foruaren pergaminoa. IREKIA

bat da, eta berreskuratzea, beraz, Euskadiko Dokumentu Ondareari egindako ekarpen garrantzitsua izan da.

Garrantzi handiko testua

Labrazako Forua garrantzi handiko testua da Euskadiko Erdi Aroko Historiaren ikuspegitik, eta Nafarroako erregeak, Antso VII.a Azkarrak, eman zion San Cristobal de Labrazari 1196an. Testua latinez idatzita dago, eta erregearen ikurra agertzen da

bertan: arrano beltz bat beheko aldean, erdian; eta Krismoia bat goiko ezkerreko ertzean. Arauak, besteak beste, herriko biztanleen arteko elkarbizitza arautzen du; horrez gainera, testuak horien eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu, euren usadio eta ohitura onetatik abiatuta.

Eusko Jaurilaritzako Kultura Ondarearen zuzendari Mikel Aizpuruk erakundearen arteko lankidetzaz azpimarratu du: "Labrazako Foruak garrantzi handia du Euskadiko Erdi Aroko Historiaren ikuspegitik, eta Euskadiko Artxibo Historikoak, nola ez, ondare hori babestearen aldeko apustua egin behar du. Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurilaritzaren arteko lankidetzaz funtsezkoa izan da. Gainera, eskerrak eman behar dizkiegu agiri hori aurkitu zutenei".

Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Igone Martinez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak adierazi du Arabako historia islatzen duen dokumentu garrantzitsua dela: "Ezinbestekoa zen horrelako dokumentu bat berreskuratzea, sekula desagertu behar ez zuena Arabako Errioxatik. Eusko Jaurilaritza eta gu geu Udalarekin eta Administrazio Batzordearekin bilduko gara aurki hurrengo pausoak zehazteko; helburua izango da zehaztea zer egingo dugun erosketa burutu ostean". ■

'Roma'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Mexikoko zineak 1936tik 1959ra bitartean Urrezko Aro bat izan zuela esan ohi da, eta, kritikari askok 2000tik aurrera beste berpizkunde bat ikusi dute. Hor ditugu Alejandro Gonzalez Iñárritu, Guillermo del Toro, Carlos Reygadas, Michel Franco, Amat Escalante edo Tatiana Huezo, guztiak nazioartean zein zinemaldietan sarituak. Hauen artean, Alfonso Cuarón sartu behar da, noski, aipatu dugun zinemagintza mexikarraren olatu berri honen ordezkariik heterodoxoena. Mexikotik irten zenetik lan zeharo desberdinak egin ditu: Fantasiakzako saga ezaguneraren hirugarren atala egin zuen (*Harry Potter eta Azkabango preso*a, 2004), kezka sozialeko distopian murgildu zen (*Children of Men*, 2006), eta hiru dimentsioko zientzia-fikzioarekin ere ausartu zen (*Gravity*, 2013). Aurten jaioterrira itzuli da, eta oso lan pertsonal eta kutuna aurkeztu du: *Roma*.

Aspalditik zuen haurtzaroko oroitzapenei buruzko zerbait egiteko asmoa, eta Libo bere inudea lokarri bezala hartuz (filman Cleo deitzen da) 70eko hamarkada hasierako Mexiko Hiriko Roma auzoan bizi den erdi mailako familia baten gorabeherak erakutsiko ditu. Baina Roma askoz gehiago da, eta zuzendariak dioen moduan, filmak maitasunaren misterioa



'ROMA'

aurkeztu nahi du, espazioz, memoriaz eta denboraz harago dagoela proposatuz. Egia esateko, Cuaronek, Reygadas eta Iñárrituk ere egin bezala, zinea lengoaia moduan erabiltzen du *Roman*, eta bere irudiek transzendentziarako bidea hartzen dute, askotan narrazioa alde batera utziz.

Hori gutxi balitz, estetika landu eta ederrarekin sortu du filma, zuri-beltz harrigarri batean, eta eraikitzen dituen planoai (batez ere jendetza

agertzen den bakoitzean) dotoretasuna darie. Filmaren aurrekontua 15 milioi dolarretara iritsi da, eta horrek teknikoki aukera anitzak izatea erraztu du (garabiak, *travelling*-ak, jendetza mugitzea, eraikitako dekoratuak, 65 mm-tan filmatzea,...). Hala eta guztiz ere, *Roma* lan intimista da, eta garai eta leku zehatz bateko pertsonen bizipenak ditu ardatz bezala.

Filmaren pertsonaiaren batengana hurbiltzekotan, ikusleak Cleo neskamearekin bat egingo du, bera baita aldiro pantailan agertzen dena. Hala ere, nahiz eta erdi mailako familiak ondo zaindu, bere jatorri indigenak (misteka) bizitza baldintzatuko dio, eta bidegabeko egoerak sufrituko ditu, besteak beste haurdunaldi zail eta gogor bat.

Roma pantaila handian ikusi eta gozatzeko zerbait da, baina tamalez oso zine areto gutxitan ikusi da. Netflix-en bitartez ekoiztu du, eta hortxe ikusi daiteke filma. Ikus-entzunezko mundua aspalditik eraldatzen ari dela argi dago, batez ere kontsumitzerako orduan; baina zein mailara arte baldintzatuko du publikoak bukaerako produktua? ■

**'ROMA'-N IRUDIEK
TRANSZENDENTZIARAKO
BIDEA HARTZEN DUTE,
ASKOTAN NARRAZIOA
ALDE BATERA UTZITA**

zinea

Urjauzitik ur-jauzi

GURE BAZTERRAK



Goiuri

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerria: Urkabustaiz.

Biztanleak: 57 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: XIX. mendearen hasieran galdu zen euskara.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Herri hau Goiuri-Ondona konzejukoa da. Mendi baten magalean dago, Altube ibaiaren adarra den Jandio errearen ezkerreko ertzean. Inguruetan Jandio erreka sortutako ur-jauzi ederra da aipatzekoa. Haren urak ehun metrotik gorako altueratik jausten dira Euskal Herriko pagadirik handienetako batera. Altube ibaiaren haranean eta Gorbeia-ko Parke Naturalean dago herria.

Udan emari txikia ekartzen du errekek, eta, beraz, ur-jauzia ikusteko garairik hoberenak udaberria eta udazkena dira, garai horietan okre, gorri eta urre kolorez estalirik egoten baitira inguruko harizti eta pagadiak.

Ur-jauzia ikusteko badago behatoki bat. Hartara iristeko, A-2521 erre-idearen eskuinaldetik ateratzen den bidea hartu behar da, Izarratik Goiurira iritsi baino lehen.

Urjauzi izena duen artzain bati buruz eta lamia bati buruz hitz egiten duen kondaira duen ur-jauzia da, gainera. Legendaren arabera, eguna magiazko ispilu baten aurrean apaintzen ematen duen lamia bat bizi zen Goiurin, eta ispilu horrek eskatu beste ematen zion. Hori egiten zegoen Urjauzi izeneko artzaina ispiluarekin



tematu zenean, eta deskuidu batean lapurtu zionean. Egun batean, ordea, lamiak ibai ertzean, pago baten azpian, ikusi zuen arte. Zein da zure izena?, galdetu zion. Urjauzi, erantzun zuen artzainak. Eta une horretan bertan Goiuriko ur-jauzi handia bihurtu zen, akats handia egin zuelako eta Urjauzik euskaraz ur-jauzi esan nahi duelako.

Ondare naturalaz bestalde, badu ondare arkitektoniko ikusgarria Goiurik. Hala, Done Jakueren parrokia elizak Erdi Aroko ataria gorde du, XII. eta XII. mendeen artekoa. Ojiba arku eta lau arkibolta dauzka, lehenengoan *Jacobi* idatzita. XIII. mendeko oinplano angeluzuzeneko fabrikak bi ataleko nabea du. Garaipen arku makotua dauka, itsatsita harroin erdiak dituzten pilastreen gainean.

Beste alde batetik, artisau eran egindako Idiazabal jatorrizko deiturako gazta eta bertan egindako gozoak eros daitezke Goiurin.

EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

POSTONTZIA

Edith Baños Monasterio Gasteiz

Maitiiiiiii! Zure txanda iritsi da! Zer idatzi pentsatzen hasi eta geure inspirazioa zeu zarela etorri zaigu mihi puntara berehala! Hala izaten jarrai ezazu eta urte berriari egin diozun bezala, emaguzu geuri ere egunero irribarre polit horrekin ongietorria! Maite zaitugulako eta gaur zorionekoak geu garelako zeu ondoan izatearren! Aupa zu!!!



ZOZKETAK

Irabazlea:

Hala Bedin afaria: Olga Agirre Gainzarain.



Errigora saskia

Erriberak emandako produktuekin osatutako saski bat zozketatuko da. Hilaren 22ra arte eman daiteke izena.



Bi libururen zozketa

Txerra Rodriguezen *Sutondoko kontuak* liburuaren zozketa egingo da. Eman izena urtarilaren 16a baino lehen.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Urtarrilaren 11tik 17ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Izaki Gardenak

'Dena oskol' lan berria aurkeztuko du Gasteizko taldeak. Mobydick taldearekin batera.

Larunbata 11, 21:00etan, Jimmy Jazzen.

DANTZA

GASTEIZ Ilunabarrean dantzan

Balfolk saioa, Josu Garateren eskutik. *Igandea 13, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

GASTEIZ Dantza plazan

San Anton eguneko ekitaldien artean izango da.

Osteguna 17, 17:45ean, Plaza Berrian.

BERTSOLARIAK

LEGUTIO Bertso jaialdia

Manex Agirre, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra eta Julio Soto bertsolariekin.

Ostirala 11, 19:30ean, herriko kultur etxean.

HAURRAK

GASTEIZ Estanpazio tailerra

Erliebezo grabatuak egingo dituzte, eta teknika horrek eskaintzen dituen aukerak ezagutuko dituzte. Familientzako lantegi berezia. 6-12 urte bitarteko haurrentzat.

Larunbata 12, 17:00etan, Artiumen.



SUAIA ETA AMA REBEL

AMURRIO Suaia eta Ama Rebel

Burubio Splash jaialdia. Zitada & Rlantz eta Aiaraldea Soundekin batera. *Ostirala 11, 22:00etan, Burubio aretoan.*

LAUDIO Kimika saioa

Bi esperimentu nagusi egingo dituzte, eta askaria izango dute ostean. 5 urtetik gorako haurrentzat antolatutako jarduera.

Larunbata 12, 17:30ean, Zubiko etxean.

GASTEIZ 'Futbolariak eta printzesak'

Eidaberen eskutik. Haur eta gazteei zuzendutako komedia. 10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat. Jabetze Feministarako Eskolak antolatutako jarduera.

Larunbata 12, 18:00etan, Etxanobe jauregian.

GASTEIZ Puzgarriak

San Anton eguneko jardueren artean. Gargantua eta beste hainbat puzgarri izango dira. Txokolate jana ere izango da ekitaldien artean.

Osteguna 17, 17:00etatik 18:30era, Plaza Berrian.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Bretoiera'

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Metig Jakez-Vargas ekintzailearen eskutik. *Asteazkena 16, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

BESTELAKOAK

GASTEIZ Principal Antzokia ezagutzeko bisitaldiak

Gasteizko Antzokiaren inguruko bisitaldi gidatuak, euskaraz. Sarrera erosi behar da.

Larunbata eta igandea, 12:00etan eta 18:00etan, Principalen.

AMURRIO 'Askatasun haizea'

Dispersio politikaren inguruko argazki erakusketa.

Hilaren 20ra arte izango da, La Casonan.



'EL SILENCIO DE LOS OTROS'

LAUDIO 'El silencio de los otros'

Almudena Carracedok eta Robert Baharrek zuzendutako dokumentala.
Larunbata 12, 17:30etan eta 20:00etan, Audioalde ikastetxean.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Landmvrks, Meltdown, Fears Away eta Just

Ostirala 11, 21:00etan, Rock Urban Concept aretoan.

GASTEIZ Arizona Baby

Larunbata 12, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

GASTEIZ Quinta Essencia

Asteartea 15, 20:00etan, Dendaraban.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Good bye Lenin' pelikula

Pelikula ikusi ostean, solasaldia izango da artearen inguruan.
Asteartea 15, 17:00etan, Artiumen.

ARAIA Mendi festibala

'Mundo subterráneo' dokumentala.
Larunbata 12, 18:00etan, Andra Mari aretoan.

GASTEIZ 'Eustelkeria' liburuaren aurkezpena

Adi! Ustelkeriaren Aurkako Elkartearen eskutik. Igor Meltxor kazetari eta idazlearekin.
Asteartea 15, 19:30etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean.

GASTEIZ San Anton eguna

Folklore Akademiako musikariekin eta buruhandiekin kalejira, txerriaren bedeinkapena eta txokolate jana, beste hainbat ekitaldiren artean.
Osteguna 17, 17:00etatik aurrera, Plaza Berrian.

GASTEIZ 'Berdeguneak, leku isilak'

Familientzako jarduera. 16 urtetik gorakoentzat. Euskaraz eta gaztelaniaz.
Osteguna 17, 19:00etan, Ataria gunean.

LAUDIO Azoka agroekologikoa

Tokiko produktu ekologikoen azoka. Gainera, salda dastatzeko aukera egongo da eta sasoiko produktuekin osatutako saskia zozketatuko dute.
Larunbata 12, 10:00etatik aurrera, Herriko plazan.

Lr. 12	IZAKI GARDENAK + MOBYDICK
Os. 18	AURITZ
Lr. 19	EL KANKA
Lr. 19	DJ LORO + WAVY ROOTZ
Os. 25	LA VALLEKANA SOUND SYSTEM

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



Urtarrila

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

2019

08 as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Hitzkuntza: 12 hizkuntza

No more tour

Fermin Muguruza & Daniel Gómez

Filmazpit: zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpitutuekin

16 az. | 19:00 Hitzaldia



Irena emateko

Bretoiera

Metig Jakez-Vargas

Hitz Adina Mintzo, hitzkuntza gutxiak ezagutzeko zikloa

UEUekin elkarlanean

27 ig. | 19:00 Ikuskizuna



Sekula kontatu behar ez nizkizunak

Koruko Heras & Iban Zaldua

Saski Naski, sorkuntza artistikoen oinarri

09 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Has Gasteizen euskaraz bizitzen

11 baino +: Has Gasteizen euskaraz bizitzen

Mikel Ezkerro

Dokumentalaren estreinaldia

19 lr. | 10:00-19:00 Ikastaroa



Irena emateko

Izan Media tailerrak

Irratigintza, kargelintza, bideogintza & prentsa / sare sozialak

Hala Bedi, elkarlanean

29 as. | 19:00 Ikastaroa



Irena emateko

Soziolinguistika hiztegi txikia: Kultura

Manex Agirre & Josu Amezaga

UEUekin eta Soziolinguistika klasterra elkarlanean

13 ig. | 19:00 Dantza-saioa



2019

Gonbidapenak Oihanederren urtarrilaren 3tik aurrera

Josu Garate (Eibar)

Ilunabarrean dantzan balditza eta euskal dantzen plaza

23 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Jainkoak ez dit barkatzen

Josu Martinez

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa

GEU elkarlanean elkarlanean

31 og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Taberna

Audience

Eskilarapeko Soinuak, formatu bikoitza kontzertuen zikloa

Urtarrilak 18 > martxoak 3

Erakusketa

REGARDS SUR LA DANSE BASQUE
EUSKAL DANTZAREN URRATSETAN

SOKA

Euskal dantzaren urratsetan. Erakusketa ibiltaria

Inaugurazioa: Urtarrilak 18 - 20:00

EKE-ekin elkarlanean

OIHANEDER.EUS

FRAY JACARAS MARTINEZ, 2 - VITORIA-GASTEIZ

ELAGINTZARAK

Diario

ALEA

berria

ANTOLATZAK



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala